

*Agerraldia Legebiltzarreko Europako Gaien eta Kanpo Harremanen Batzordean***AGERTOKI GLOBALEAN EUSKADI BASQUE COUNTRY-REN PROIEKZIO AKTIBOAGO ETA ERAKARGARRIAGO BAT INDARTZEA DA NAZIOARTEKOTZE ESTRATEGIAREN HELBURUA**

- Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzak 2020rako Euskadi Basque Country Nazioartekotze Estrategia eta Kanpo Harremanetako Plana aurkeztu ditu Legebiltzarrean
- 1.900 ekintza aurreikusita daude Euskadi nazioartekotzeko eta 270 milioi euroko aurrekontua izango dute 2020ra arte

Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusi Marian Elorzak agerraldi bat egin du Legebiltzarrean 2020ra begira Euskadi Basque Country (EBC) Nazioartekotze Estrategia eta Kanpo Harremanetako Plana agertoki global berrirako eguneratuta aurkezteko. Bi dokumentu horien azken helburua da agertoki globalean Euskadi aktiboago eta erakargarriago baten proiektzioa indartzea. Horretarako, Estrategiak 1.900 ekintza ditu aurreikusita Euskadi nazioartekotzeko, eta 270 milioi euroko aurrekontua izango dute datozen lau urteetarako.

Kanpo Harremanetarako Idazkariak gaur arratsaldean egin du agerraldia Legebiltzarreko Europako Gaien eta Kanpo Harremanen Batzordean. Kanpo Harremanetarako Zuzendari Leyre Madariaga eta Europako Gaietarako Zuzendari Mikel Anton izan ditu bertan lagun.

Euskadi Basque Country Estrategia XI. Legealdirako Gobernu Programak jasotako 15 Plan Estrategikoetako bat da, datozen urteetan exekutiboaren nazioartekotzea gidatuko duena. Estrategia eguneratu egin da eta 27 dira orain jardute-eremuak Gobernuaren nazioarteko jardueran. Eremu horien artean daude kirola, bizikidetzeta eta giza eskubideak, gobernantza publikoa, berdintasuna, berrikuntza, lanbide heziketa eta gizarte-politikak, besteren artean.

1.900 ekintza daude aurreikusita Euskadiren kanporako proiektioari begira, eta 270 milioi euroko aurrekontua izango dute 2020ra arte.

JARDUEREN TIPOLOGIA	JARDUEREN KOP. (2018-2020 epealdia)
Lankidetzeta eta partaidetzeta nazioarteko proiektuetan eta sareetan	400
Partaidetzeta aktiboa nazioarteko ekitaldietan, argitalpenetan eta foroetan	350
Asistentzia prospektiboa ekitaldi/konferentzietara edota bilera aldeaniztunetara	450
Bidaien antolamendua atzerrira	200
Atzerriko ordezkartzen topaketak edota harrerak Euskadin	250
Finantzaketa-programen sustapena eta babes ekonomikoa nazioartekotze-esparruan	250

EBC Estrategiak lehentasunezko eremu berriak jasotzen ditu. Zehazki, 18 herrialde eta 12 eskualde: Erresuma Batua, Alemania eta Finlandia, Europan; Estatu Batuak, Mexiko eta Txile, Amerikako kontinentean; Txina eta Japonia, Asian; eta Hego Afrika, Afrikako kontinentean. Gainera, Bazkide Estrategikoen Sarea indartuko da, orain Akitania, Jiangsu, Flandes, Querétaro, Baviera, Cundinamarca eta Quebec kide direnekoa.

Bestalde, Estrategia hau 5 plan sektorialetan hedatuko da: Kanpo Harremanak; Enpresen Nazioartekotzea; Turismoa, Kultura, Garapenerako Lankidetzeta.



## KANPO HARREMANETAKO PLANA

Kanpo Harremanetako Planak EBC 2020 zehazten du instituzioen kanpo harremanei dagokienez. Bertan biltzen den edukiak hiru helburu estrategiko ditu ardatzat: Euskadi eragile global gisa kokatzea, Europar Batasunean duen presentzia sendotzea eremu natural eta lehentasunezko hartuta, eta euskal interesak munduan sustatzea.

Nazioarte mailako harreman instituzional alde bikoak eta aldeaniztunak funtsezko elementutzat hartzen dira euskal interes sektorialak atzerrian babestu eta defendatzeko. Eusko Jaurlaritzak lotura egonkorrak eta irmoak sortzen jarraituko du nazioarteko organismoekin, lehentasunezko herrialde eta eskualdeekin, eta garrantzizko sare sektorialekin. Bestalde, kanpoko diplomazia publikoari lotutako ekintzak bultzatuko dira eragina irabaztearren, hainbat arlotan, besteren artean kulturen eta zientzian, lankidetzak sustatuz.

### Agenda 2030

Aipatutako helburuak lortze aldera, euskal gizarteak Garapen Iraunkorraren Helburuekin (GIH) hartua duen konpromisoa nabarmentzen da; helburu horiek Nazio Batuen Agenda 2030ean planteatu ziren. Nazioarteko lan-eremu berri bat da hau, xedetzat duena Euskadi erreferentziazko Herrialde gisa kanpoan kokatzea garapen iraunkorraren helburuei dagokienez, maila hauetan: sentsibilizazioa, hedapena eta politika publikoetan helburu horiek txertatu izana. Lehen mugari gisa, Euskadi Basque Country Agenda 2030, laster onetsiko dena, politika sektorial desberdinak 17 GIHei lotutako helburuekin eta xedeekin lotzeko diren mailaren isla izango da, eta baita politika sektorialek helburu horiei egin dien ekarpenarena ere. Gainera, Aliantza baten sorkuntza bultzatuko da Agenda 2030aren alde, eta jarduera ugari antolatuko dira sentsibilizazioari, prestakuntzari eta hedapenari lotuta.

### Adimen lehiakorra

Enfasi berezia jarriko den beste eremu bat nazioarteko harremanetan adimen lehiakorra sustatzearena izango da, instituzioen barruan eta gizartean. Ildo horretan, atzerriko erakundeetan eta gobernuetan Nazioarteko Mugikortasun Programa bat diseinatzea da asmoa, Gobernuako teknikariei zuzendua, eta Think-Tanks-ekin harremana sustatu eta aukera aztertuko da **Euskadin Nazioarteko Harremanen arloan Ezagutza Sare** bat sortzeko.

### Europa

Europari dagokionez, esparru komunitarioak lehentasunezko fokua izaten jarraitzen du, berebiziko garrantzia duena Euskadiren kanpo harremanetarako. Hala, horregatik azpimarratzen da Euskadiren parte-hartzea sustatzea Europako proiektuan, berehalako etorkizunean sortuko diren erronka handien testuinguruaren aurrean, besteren artean nabarmentzekoak: Erresuma Batuaren irteera Europar Batasunetik eta **Europaren Etorkizunari buruzko Liburu Zuriak** irekitako hausnarketa-prozesua. Eusko Jaurlaritzak hemendik gutxira aurkeztuko du gai honi buruz duen ikuspegia, Europar Batasuneko instituzioetan Euskadiren parte-hartze proaktiboa bultzatzen jarraitzeaz gainera.

### Euskal Komunitatea Kanpoaldean

Kanpoan den euskal komunitatearekiko loturek aktibo nagusietako bat izaten jarraitzen dute Euskadiren kanpo harremanak eraikitze aldera. Hala, bi noranzkoen kontzeptua azpimarratzen da, euskal kolektiboek presentzia duten herrialdeetan babesa eskainiz ez ezik, Euskadin euskal diasporari buruzko ezagutzaren garrantzia nabarmenduz eta ezagutza hori sustatuz ere. Ildo horretatik, hartutako erabakietako bat izan da irailaren 8a "Diasporaren Eguna" izateko aukeratzea.